

ARCCO AMARA MERKATARITZA-GUNEAREN GABONETAKO ZOZKETEN OINARRIAK

1.- ARCCO BERRI SL sozietateak (IFK: CIF-B-75048603; helbidea: Irun plaza 6, 20011 Donostia), Gabonetako kanpaina dela eta, hainbat zozketa egingo ditu Arcco Amara merkataritza-guneko bezeroen artean.

2.- Kanpaina honetan 12 erosketa-orga zozkatuko dira gabonetako produktuekin, eta 12 pazko-lore zozkatuko dira.

3.- Zozketan parte hartu ahal izango dute **abenduaren 17tik abenduaren 29era bitartean** (biak barne) edo txartelak agortu arte Arcco Amara merkataritza-guneko saltegietan edozein zenbatekoko erosketak egiten dituzten adin nagusiko bezero guztiek.

Saltegi guztiek izango dituzte txartelak, eta bezeroei emango dizkiete erosketa bat egiten duten bakoitzean. Bezeroek txartela kutxatilan sartu beharko dute zozketan parte hartu ahal izateko.

Ezin izango dute parte hartu Arcco merkataritza-gunearekin lan- edo merkataritza-harremana duten pertsonak, ez merkatariek, ez merkataritza-gunean lan egiten duten langileak.

4.- Zozketak abenduaren 23an eta 30ean egingo dira, ausaz parte-hartzaile guztien artean, eta, egun horretan bertan, merkataritza-guneko bulegoak sarituei jakinaraziko die, txartelean adierazitako telefono-zenbakira deituta.

5.- Sarituek beren irudi-eskubideak baimentzen eta lagatzen dizkiote Arcco Berri SLri, eta, gainera, enpresa horrek bere izen-abizenak, bizi den herrialdea eta hiria eta irudia erabili ahal izango ditu barneko eta kanpoko komunikabideetan (sare sozialak, etab.) argitaratzeko. Gainera, erabilera horrek ez dio eskubide berririk emango lortutako sariaz gain. Sarituek Arcco Berri SLri ez badiote baimenik ematen hemen adierazitako eskubideak baliatzeko, ulertuko da sarituek uko egiten diotela sariari, eta, ondorioz, itzuli egin beharko dute, jaso badute. Arcco Berri SLk eskubidea izango du edozein unetan aldatzeko sustapen-ekintzaren baldintzak, baita bertan behera uzteko ere, betiere justifikatutako arrazoiak badaude.

6.- Arcco Berri SL da datuen arduraduna, eta datu-base batean gordeko ditu, indarrean dagoen legeriak eskatutako segurtasun- eta konfidentzialtasun-neurriekin, urteurren-kanpaina hau kudeatzeko. Parte-hartzaileek eskubidea izango dute eurei dagokien informazioa atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko, aurka egiteko, ahazteko eta emateko, eta datu-basearen parte izateko baimena ematen

dute. Eskubide horiek direccion@arccoamara.com helbide elektronikoan baliatu ahalko dituzte, eta eskaerarekin batera NANaren fotokopia igorri beharko dute. Jakinarazten dizuegu datuok borondatez ematen direla, eta baimen esplizitua parte-hartzailearekiko harremana arautzen duen oinarri juridikoa dela. Baimen hori lortzearen helburua zozketa bera egitea izango da, eta datuak merkataritzagunearen datu-baseetan gordeko dira etorkizunean Arcco Berri SLk antolatzen dituen ekitaldi, sustapen edo jarduera berriak jakinarazteko.

7.- Sustapen-ekintza honetan parte hartzeak oinarriok onartzea dakar. Lotura honetan egongo dira eskuragai oinarriak: www.arccoamara.com